

5.- EPAIMAHAIA. Ondorengo hauek osatzen dute epaimahaia:

* **Mahaiburua:** Ainara Rodríguez Zalakain, Andoaingo Udaleko Euskara Saileko zinegotzi arduraduna, edo honek bere ordezkoko gisa izendatutako udalkidea.

* **Mahaikideak:** Miren Azkarate, Jose Inazio Basterretxea, Allande Boutin, Aingeru Epaltza, Elixabete Larrinaga, Jon Unanue, Arantxa Urretabizkaia, Aitor Zuberogitia.

* **Idazkaria:** Patxi Baztarrrika, Andoaingo Udaleko Euskara teknikaria, hizpidez baina hautespiderik gabe jardungo duena.

6.- AZKEN ERABAKIA:

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren

30. urtebetzeko ospakizuna

2018ko urrian egingo den ekitaldian emanngo dira ezagutzera –eta banatuko dira– Epaimahaiak erabaki dituen 10 sariak. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren 30. urtebetetzea ospatzeko jaia izango da, eta bertan Rikardo Arregiz geroko euskarazko kazetaritza eta komunikazioan gertatu den aurrerakadaren protagonistak eta beren lana goraiatuko dira.

rikardo
arregi




Euskal idazle, kazetari eta kultur eragilea (Andoain, 1942–Mendaro, 1969). Idazle argi, sakon eta zorrotza, euskal prosa kazetaritzaren molde berrietan barrena abiarazi zuen. 1966ko urtarrilean Euskaltzaindiari alfabetatze saila antola zezan proposatu zion, eta huraxe izan zen euskalduntzeko mugimenduaren hasiera. Idazlan nagusiak **“Politika Estrukturak europear alkartasunean”** (1965); **“Politikaren atarian”** (1969); **“Herriaren lekuko”** (1972)...

FG: zirrimarra



RAKS
2018



URTE
MUGARRI

XXX.
RIKARDO
ARREGI
KAZETARITZA
SARIA



10 MUGARRI
30 URTE
RAKS2018

30 urte, 10 mugarri

Aurten, 2018an, 30 urte beteko ditu Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak. Horrexegatik, ospakizun urtea da, eta aitormenak eginez ospatu nahi dugu hain urtebetetze seinalatua. Atzera begira jarriko gara aitormenak egiteko, baina aurrera begira gaude eta hala jarraituko dugu, XXXI. edizioa edizio berritua eta berritzailea izan dadin. Hainbeste zor diogu Rikardo Arregik duela bost hamarkada euskarazko kazetaritzan ere maisutasun eta ugaritasun handiz jorratu zuen modernizazio eta berrikuntza ildoari.

Horra, bada, Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren XXX. edizioa laburbiltzen duen leloaren izateko arrazoiak: *30 urte, 10 mugarri*.

Rikardo Arregiz gero euskarazko kazetaritzak gure egunotara arte egin duen jauzi itzelezkoan mugarri izan direnentzat aitormen-sariak izango dira XXX. edizioko Rikardo Arregi Kazetaritza Sarian erabaki eta emango direnak. *30 urte, 10 mugarri, 10 sari*.

1988an hasita burutu diren hogeita bederatzia edizioetako oinarrien sarrean irakurri daitekeenez, “euskararen normalizazioak ezinbestez behar ditu euskaraz egindako kazetaritza eta komunikazio prestu eta modernoak, kalitatekoa eta garaian garaiko beharrezanetara egokitua”. Helburu horren alde, apaltasun osoz bada ere, akuilu eta sustatzaile aritzeko jarri zuen Udalak abian Rikardo Arregi Kazetaritza Saria, eta horretan dirau. Hona, ondoren, 2018rako oinarriak:

1.- SARIAREN XEDEA. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren helburua euskarazko kazetaritzaren kalitatea, bikaintasuna eta berrikuntza bultzatzea denez, eta Rikardo Arregiz gero, azken lauzpabost hamarraldietan alegia, euskarazko kazetaritzak jauzi kuantitatibo zein kualitatibo sendoa egin duenez, 2018ko Sariaren xedea da denboraldi horretan zehar, une batean edo bestean, aitzindari, erreferentzia nagusi, bidegile, biderakusle izan diren hamar mugarri aitortu eta saritzea, hartarako izendatutako epaimahaiak irizten dionaren arabera.

2.- SARIAREN EZAUGARRIAK. Aipatutako lauzpabost hamarraldietan euskarazko kazetaritzan eta komunikazioan gertatu diren hazkunde, garapen eta eraldaketa sakona, momentu, testuinguru eta zirkunstantzia aski ezberdinetan hainbatek era askotako pausoak eman dituztelako gertatu da. Jende askoren lana, era askotako ekimena eta era askotako ekarpena dago jauzi honen oinarrian: pertsonak daude, kazetariak, traiektoriak, hedabideak, kazetaritza-moldeak, sustatzaileak, kazetaritza-lanak, kazetari lana euskaraz egiteko tresnak, euskararen beraren garapena, askotariko erakundeak, kontsumitzaileak, azpiegiturak, babesleak... Jauzia, kazetaritza eta komunikazioaren arlo eta euskarri guztietan gertatu da: prentsa idatzian, telebistan, irratan, interneten. Askotarikotasun hori tarteko, epaimahaiak erabakiko dituen 10 mugarriak ere, beren ezaugarriei dagokienez, askotarikoak izan daitezke: izan daitezke pertsonak, izan daitezke hedabideak, izan daitezke traiektoriak, sustapengintza, erremintak, kazetaritzalan erreferentzialak... edozer izan daiteke, baldin eta aitzindari eta mugarri izan bada une jakin batean.



3.- PROPOSAMENAK AURKEZTEAZ. Hamar mugarri horiek finkatuko dituzten sariak erabakitzeke proposamenak aurkezteko aukera zabalduko da. Horrela, bada, sariak ebatziko dituen epaimahaiari edonork proposamenak egin ahal izango dizkio, hala norbanakoek edo norbanako taldeek nola izaera juridikoa duten erakundeek, argi eta garbi adieraziz honakoak:

- Nor edo zer saritu nahi den (hedabidea, erakundea, kazetaria, komunikatzailea, kazetaritza-lana, kazetaritza-ibilbidea, ekoizpena, aitzindaritza...).
- Proposatutako saritzeko arrazoiak (meretzimenduak ahalik eta modurik argi, labur eta eskematikoenean adieraziak).
- Proposatzailearen izena eta harreman-bidea (datu hauek ez dira ezinbestekoak proposamena egiteko, proposamen egilearen esku baitago bere izenaren berri proposamenarekin eman edo ez erabakitzea).

Proposamenak 2018ko ekainaren 15era arte aurkeztu ahal izango dira, posta arruntez edo posta elektronikoz bidalita helbide hauetakoren batera:

XXX. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria
Andoaingo Udala. Euskara Zerbitzua
Goikoplaza, z/g
20140 Andoain
euskarazerbitzua@andoain.eus

4.- SARIAK. Aitormenezko sariak dira XXX. ediziokoak. Guztira 10 sari ebatziko ditu epaimahaiak, Rikardo Arregiz geroko euskarazko kazetaritzako 10 mugarritzat jotzen dituenak izango dira 10 sariak. Epaimahaiak, hirugarren oinarrian aurreikusitakoaren ondorioz jasotako proposamenak eta bere ki-deek egin ditzaketanak izango ditu mahai gainean, eta oinarri hauetan jasotakoari jarraiki hartuko du Azken Erabakia.

XXX. ediziorako berariaz prestatutako arte-lan bana emango zaie 10 saridunei, bakoitzari dagokion sariaren agiri-diplomarekin batera.